

ERRETAULAK

1966. edo 1967. urtea izango zen erabat eskulturgile, artista, bezala ibiliko nintzela erabaki nuenean. Bizimodu berria esan nahi zuen, etxean ez baitzegoen diru gehiegirik. Pisuzko erabakia izan zen, beraz.

Donostiako alde zaharrera abiatu nintzen, San Vicente elizara. Han, lehenengo aldiz, gogoratzen naiz nola hasi nintzen benetan arretaz begiratzen zer-nolakoak ziren erretaulak eta nolakoak bertako figurak. Bi gauza ziren niretzako batik bat interesgarriak. Alde batetik, figura bera, gorputzak, anatomia kontuak; eta beste alde batetik, hondoa litzatekeena, erretaula. Egia esan, erretaularen ideia denboran zehar gaur egundaino etorri da, hain zuzen, oraindik orain jarraitzen dut erretaulak esploratzen. Gorputz horiek ere, eraldatu dira baina hemen daude.

Urte horietan, harrian egin nituen biluzi batzuk eta horretarako Aiako eskolara joan nintzen harria menperatzen hasteko. Berehala, San Telmoko erakusketa batean topo egin nuen Jesus Gallego irakaslearekin. Gipuzkoako arte-elkarteko irakaslea zen eta gonbidatu ninduen gehiago ikasi nahi banuen Gipuzkoako artista-elkartera joan eta hartu-eman izatera. Horrela hasi zen nire formazio autodidakta, ez zena Aiako ikasketak amaitzean eten, izan ere, beste informazio eta beste jakinduria batzuk bildu nituen gizon honengandik.

Jakina, erretaula bat egiteko aurrena figura menperatu beharra dago eta horretarako figurak lantzeari ekin nion eta hala azaldu ziren lehenengo estrukturak. Akaso, figura osorik egitea ez denez beharrezkoa dena kontatzeko (adierazteko), figura erdiak egiten aritu nintzen... edo figurak egin ostean moztu eta desplazatzen. Eta horren guztiaren eragile, neurri batean, Jesus Gallego irakaslea izan zen, hark proposatutako zenbait ariketa izan baintuen abiapuntu. Behin figura pixka bat forma hartzen hasi zenean, hasi ginen hondoa lantzen. Egia esan, berak bazuen figuraren dinamikaren inguruko ideia bat bereziki manierismoan oinarritzen zena: Signorelli, Michelangelo... eta beste hainbat eta hainbat. Hortik abiatuz hasi nintzen lanean.

Bestalde, eskultura eta erretaulekiko nuen interesa ikusirik, asko aipatu ohi zidan Salzillo eskulturgilea. Hain zuzen ere, berarengatik hasi nintzen deskubritzen pixka bat Salzillo eta, beranduago, Valladolideko Eskultura Polikromatuaren Museoan beste hainbeste ezagutu nituen: Juan de Juni, Gregorio Fernández... eta egia esan luxu bat izan zen. Figura ez ezik, teknika ere landu nuen Jesus Gallegorekin, hain justu, tenplea berak irakatsi zidan. Hala, elkarrekin ikasi genuen.

Behin figura pixka bat menperatuta, nik uste dut, kontzeptu inportante bat irakatsi zidala Jesus Gallegok. Espazioa ikusteko modu bat. Beti pentsatu ohi dugu espazioa airea dela, figuraren inguruan dagoena. Berak, ordea, nolabait ere, hobeto ulertzeko espazioaren eragina figurarengan, hala esan zidan: *“Ez duzu horrela ikusi behar, baizik eta ikusi behar duzu espazioa ura izango balitz bezala. Zu itsasoan murgiltzen zaren bezala, ur horrek duen bultzada zure gorputzarengan, eta zu nola mugitzen zaren ur horretan”*. Hala, esan genezake, espazioa gauza solidoagotzat ulertzean, hobeki edo argiago ikusten dela haren eragina figurengan eta orduan figurak beste modu batean kokatzen direla. Eta noski, geroztik, beti ikuspuntu horretatik lan egin izan dut.

Denboraren poderioz, figurak gero eta gehiago menperatu ahala, 1986. urtean sortu nituen lehen erretaulak. Igeltsu batzuk dira eta igeltsu horietan figura ez ezik, estruktura ere hasten da mugitzen, erretaularen estruktura guztia. Nolabait ere, pentsatu nuen, *beno, figurak izan badezake halako dinamika bat, zergatik ez estrukturak? zergatik ez izan hondoko erretaula horrek ere manierismo edo dinamika hori?* Modu horretara hasi nintzen hondoaren dinamika aztertzen eta simetriatik alde egiten. Testuinguru honetan sortu ziren lehenengotariko piezak.

Tartean, aukera bat izan nuen ere Carrarara (Italia) joateko Foru Aldundiko beka batekin eta han hasi nintzen praktikan jartzen, eskala txikian beti ere, figura zein hondoa. Horrez gain, materialarekin, marmolarekin, ere hasi nintzen harremana sakontzen. Han probatu nituen kupulen dekonstrukzioak eta oro har, gerora arkitekturako zenbait proiektutan erabiliko nituen elementu asko. Probatu nituen ere inkustrazio batzuk figuretan etab. Finean, eragina izan zuen denean dinamika honek, hain zuzen, adibidez *Estrukturak* sailean egindako ikerketetan, azkenekotarikoa Bulgarian eginiko *Zaldi I* izeneko pieza da eta hor ja estruktura bera ez dago zutik, baizik eta okertzen ari da figurarekin batera dinamika bat sortuz.

Italiako abentura laburra izan zen, urtebetekoa, zeren, egia esan, aipatu bezala beka batekin joan nintzen baina berau ordaintzen denbora pasatzen zuten eta azkenean xentimorik gabe geratu nintzen. Ozta-ozta ekarri nituen argazki eta bozeto batzuk, egindako eskultura guztiak ezin ekarri izatean bertan geratu baitziren. Azkenean, nolabait esateko, korrika atera nintzen Carraratik ja etxea ere ezin bainuen ordaindu.

Dinamika edo mugimendu hori lantzen ari nintzela, lehendabiziko erakusketa Azpeitian izan nuen. Azpeitiko plazan bada eliza bat, gaur kultotik kanpo dabilena, eta bertan, *Año Ignazianon*, 1990ean, proposatu zidaten erakusketa bat egitea. Hasiera batean, han zegoen erretaula aldatzen saiatu nintzen tela beltz batzuen bidez, modu horretara, dinamika erabat aldatuz. Ordea, egia esan, ez genekien erretaula nolatan mantentzen zen zutik ere,

puskaka erortzen baitzitzaigun. Orduan, beste estruktura batzuekin hasi behar izan nuen, zaldi batzuk eta zintzilikatuz. Garai hartan, giza gorputza erabiltzeari utzi nion eta zaldiarekin hasi. Iruditzen zitzaidan mezua ez zela hain bortitza. Momentu hartan eman zen beraz aldaketa prozesu hori, gizakietatik beste figura batzuetarantz.

Hurrengo urtean, erakusketa bat egitea egokitu zitzaidan San Telmo museoan. Non eta Sert margolariaren mihiseen ondoan. Nik bere mihiseak nahiko ondo ezagutzen nituen. Izan ere, Gipuzkoako arte-elkartea San Telmoko goiko solairuetan kokatuta zegoen eta egunero joaten nintzenez askotan pasatzen nintzen Serten artelanen ondotik. Gainera, Serten mihiseek zuten indarra, niretzako, garai hartan, oso indar euskalduna zen, beren esanahia handia zen; urrea ere hor azaltzen zen, marrazki potente batekin... Eta aukera esanguratsua izan zen une horretan mihise horien aurrean erakusketa bat izatea.

Horren ondoren etorri zen aukera itzel bat, 1991ean jaso nuen Eduardo Txillidaren beka. Horrek aukera eman zidan proiektu handi bat egiteko: erretaula bat egin nuen eskala handian. Estruktura muntatu nuen eta estruktura horretan txertatu nuen zenbait irudi, zehazki, gerraren inguruko figurak. Gerra landu nahi nuen gai gisa, guda, eta horren inguruan sortu ziren zenbait figura. Egia esan, erretaula hartan ez dakit azkenean zenbat figura egingo nituen; zaldi puska batzuk egin nituen, gorputz erdikoak edo pare bat, eta zazpi edo zortzi gerlari. Baina beti gertatu ohi dena: azkenean, dirua bukatu zen eta ezin osatu. Ondorioz, estruktura hori desmontatu behar izan nuen; hala ere, geratu zen pieza bat, nahiko interesgarria nire ustez. Frantzian, Nizako erakusketan, aurkeztu nuen erretaularekin lotutako pieza hura. *Guda* izena zuen. Nolabait, hondo horretatik banandu zen eta niretzako hori oso interesgarria zen.

Estruktura handia, esan bezala, ez genuen lortu bukatzea. Ordea, nolabait ere, erretaulak jarraitu zuten beren bidea. Hain zuzen, berriro hasi ziren sortzen indarrarekin 2006. urtean. Beste modu batean. Hasieran xilografiak izan ziren. Gero egurrezko erliebe batzuk.

2005ean dagoeneko azaldu zen pieza bat niretzako interesgarria. Erretaulak izan ohi dituzten kaleak (kale zentrala eta saihetsetakoak) nahasteari ekin zioten, gorputza hartzeari, beren forma hartzeari. Eta erretaulen barruan, elementu figuratiboez gain elementu sinbolikoak hasi ziren azaltzen. Gaiei dagokionez, garai hartan, denetarik landu nuen: interesatzen zitzaizkidan elementu asko agertzen dira, sinbolismoez aparte aurki daitezke, besteak beste, harri batzuk zintzilika —kanpandorreetako harriekin eta telareetan (ehungailu) kontrapisu gisa ibiltzen ziren harriekin lotuta—. Horrek guztiak beste prozesu batera eraman ninduen: *Floating World* pixka edo *Mundu Flotantera*.

Azkenean, 2007. urtean sortu nuen lehendabiziko erretaula handia, nire pieza kutunen artean dagoena. Gainerakoekin konparatuz gero, oso handia zen —sei metro edo gehiago zabal eta altueran lau metro—. Gaia Altzüruku zen. Zehatz esateko, Altzürukuko kantekin zegoen erlazionatuta. Altzürukuko kantek edo Basaideek bereizgarritzat hitzik eza dute, onomatopeien bidez abesten baita. Hegaztiekin eta hegan egitearekin lotutako kantak izan ohi dira. Kantu-molde honek ahalbidetu zidan eskultura egitea letrarik izango ez balu bezala, onomatopeia izango balitz bezala. Hortaz, objektuen arteko erlazioa etab. erabat aldatzekoa.

Elementu sinboliko asko eta asko testuinguru artistiko horretan sartu nituen: sugeak, errota gurpilak, askak, paisaiak, eliza, barku kupulak, kandelak...

Urte batzuk igaro ziren beste zenbait gauza egiten. 2012koa litzateke azken erretaula, tamaina handikoa, Gernikako 75. urteurrenarekin lotuta sortu nuena. Bertan beste elementu sinboliko batzuk ere azaltzen dira, besteak beste, gurdiaren gurpila —Durangoko bonbardaketaren argazkietan ere azaltzen dena—, uztarria, —feriarekin erlazionatuta—, oilarraren galdorra... Beharbada, ordea, garrantzitsuena kristal hautsiz egindako kanpaia da, gure hauskortasunen isla baita.

Hauxe litzateke erretaulen istorioa. Azken finean, erretaulak hitzik gabe istorioak kontatzeko sortu ziren, jendeak jakin zezan bibliako giltzen edo pasarteen berri. Era berean, jatorrizko erretaulatan ere elementu batzuk oso sinbolikoak dira. Esaterako Santa Ageda eskuak bularrean dituela; edo animalien bidez ere, konparazio baterako, zezena ikusten dugu eta San Lukas da... Horrelako gauza asko dago eta bide hori niri oso interesgarria iruditu zitzaidan.

Bukatzeko, esan beharra dago, nire familian gurasoek eta ez zutela Kristorengan sinesten; edo agian harengan bai baina ez behintzat elizarengan. Beraz, agnostiko gisa kontsideratu gaitzakezue ja gurasoengandik. Hala ere, bidaltzen ninduten elizara ikastera, bibliaren pasarteak zein erretaulan agertzen ziren zenbait elementu, finean, kulturarekin lotuta daudelako eta jakinduriarekin ere bai. Nire kasuan, uste dut asmatu zutela, konturatzen bainaiz orain ja berrogeita bi urte ondoren, arte munduan murgildu nintzen ezkerro, eragina izan dutela.